

# noaua



**Txokoargi,  
Txokoaldeko  
auzoa biziberritzeko  
gune berria**

**Kontzertuek  
eta bertsoek  
girotuko dute  
Santixabel eguna**



**Kultur Birak ordezkaturako du  
Santixabel jailetako  
egitaraua**

**6. or.**

**KAFE GARAIA**

**Joxepo Artola,**

**DYAKo presidenteordea:**

“Gure boluntarioek dena  
eman dute pandemian”

Ondo pasa  
Santixabeletan!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua    Dermofarmazia  
Produktu homeopatikook    Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

[www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)

# SANTIXABELAK

uztailak 2 - 3 - 4

Etxeko kroketak  
Piperrak  
Ahuntz gazta eta onddo entsalada  
Otarraixkak plantxan

Bigarren platera aukeran:  
Lupia labean errea  
Entrekota  
Ahate konfita  
Arkumea

Azkenburukoak aukeran:  
Esne goxo krepea  
Pantxineta izozkiarekin  
edo Gazta tarta

Edaria eta kafea aparte

€ 24,90



ARTZABAL  
BASERRIA · JATETXEA

943 369139

## Albisteak iruditan

# Moxal bat lapurtu dute Aginagan

Urtzi Odriozola Twitterreko erabiltzaileak Aginagako lehengusuari moxala lapurtu diotela salatu zuen aurreko astean. Inork gai honen berri balu, berarekin hartuemanetan jartzeko eskatzen zuen.

Twitter sare sozialaren bidez izan genuen lapurretaren berri. “Moxala lapurtu zioten lehengusuari Aginagan (Usurbil), ekainaren 23an”. Animalari buruzko zenbait zehaztasun ere eskaini zituen Urtzi Odriozolak bere sare sozialean. “Arra da, marroia ile beltzarekin eta orbain zuria du kopetean. Orain bi hilabete inguru ditu”. Norbaitek zerbaite badaki, mezu bat idaztea eskatzen zuen. Urtzi Odriozola twitter helbide honetan topatuko duzue: [twitter.com/urtzai](https://twitter.com/urtzai). “Zerbait jakinez gero DM bat idatzi mesedez”.



“Arra da, marroia ile beltzarekin eta orbain zuria du kopetean”. Argazkia: Urtzi Odriozola.

## Laburrean

### Eremu horian, 126,82ko intzidentziarekin

9 egunez kasu berririk atzeman gabe igaro ondoren, iragan ostegunetik hona 6 Covid-19 kasu detektatu ditu Osasun Sailak Usurbilen. Eremu horian da udalerrri hau, 100.000 biztanleko 14 eguneko 126,82ko intzidentziarekin.

### Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

### Santixabel egunean, eukaristia Usurbilgo elizan

NOAUA!ra igorritako ohar baten bidez, parrokiak eliztarrei jakinarazi nahi die Santixabel egunean eukaristia ospatuko dutela. “Uztailaren 2an ostirala, Usurbilgo Salbatore parrokian, goizeko 11:00etan hasita”.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) /// [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Usurbilgo Udala  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti Bengoetxea

Azkenaldian, irakurri eta idazteari nahi baino denbora gutxiago eskaini diot. Eta aitzakia gisa, lanorduetan zehar, informazio kantitate asko barneratu behar izaten dudarekin eusten diot egoerari.

Esango nuke aurten, inolako gehiegikeriarik gabe, behin bakarrik zapaldu dudala liburutegia. Izan ere, urte hasieran, ostera ere irakurketan sakondu beharra nuela eta aspaldian galdutako txartela berregin nuen. Baina kito, hortxe pausatu zen saiakera.

Urtebetetzean oparitu zidaten poema liburua ere, aldizka-aldizka zabaltzen dut. Miren Agur Meaberi poema batzuk lapurtu eta nahiko aseta sentitzen bainaiz sarri. Baina hementxe daukat gaue-ro, mesanotxean zain. Eta oraindik, ez dakit nola gorde errautsa kolkoan.

Eta larritzen hasten naiz, lehen horrenbeste betetzen ninduen zaletasunetik nola aldendu ote naizen pentsatzen hastean. Pilatuta ditudan liburuen pisuarekiko proportzionalki hazten den erru moduko batek zanpatzen nau aldiro. Eta uda eta oporraldietan gauzak aldatuko direnaren pentsamendua elikatzen hasi behar izan dut azkenean.

Eta hantxe etorri zait gogorra, txalekoa, galtza urdinak,

## Giza liburutegiak



"Ander Barandiaranek, katalogotik kanporatzen ziren liburuak suntsitu egin ohi zirela jakitean, Euskal Liburutegi Sozial Ibiltaria jarri du martxan".

### ALAZNE ARRUTI

**"Eskertua sentitzen naiz, irakurzaletasuna eta idazketa elikatzen jarraitzen duten horiekin guztiekin"**

zapatak eta txapela soinean, liburuz betetako gurditxoari tiraka dabilen gazte irribarretsu baten irudia. Izan ere, Ander Barandiaranek, katalogotik kanporatzen ziren liburuak suntsitu egin ohi zirela jakitean, Euskal Liburutegi Sozial Ibiltaria jarri du martxan.

Berriki egindako elkarriketa batean, egunkari saltzaile itxurako altsasuarrak, eskuratzen dituen liburuak, Nafarroan barrena herriz herri banatzeko asmoa duela adierazi du udan zehar. Eta argitaletxeetan sobera dauden liburuez gain, etxeetan ditugun liburuei bigarren

bizitza bat emateko modua ere izan ote daitekeen pentsatzen hasi omen da.

Eta ideia bikaina iruditu zait. Eta imajinatu dut nire burua, Nafarroa aldeko herriren batean gustura asko. Ardo beltz bat dastatzen astiro eta presarik gabe eguzkitan gozo. Eta hantxe, zurrumurruren bat. Ez dakit begirada altxa eta argitasunak itsututa, erosketa orga moduko baten bueltan jendea pilatzen sumatu ote dudana. Eta, laster ni ere multzoan barneratuko naiz akaso. Eta hartara, eskuetan liburuak hartzen hasi eta lepondotik behera, zirrara moduko batek zeharkatuko nau jostari.

Baina alferrik, mamu ilun samar batek egin dit kasu izkina batetik. Izan ere, beste behin, mahai gaineko zutabea gizen-tzeko tentazioa sentitu baitut, ezer irakurtzen hasteko boron-

datearen aurretik. Eta zapalada latza eman behar izan diot irudikatutako egoerari.

Dena den, eskertua sentitzen naiz, irakurzaletasuna eta idazketa elikatzen jarraitzen duten horiekin guztiekin. Miretsia, bazkaltzeko geratu eta orain dela denbora batetik, pista galdua nion lagunaz, buruan dituen proiektuen berri eman didanean. Eta agian, horixe da unean behar dudana, ez besterik.

Agian, liburutegi humanoak bisitatzen nabil ohartu gabe. Izan ere, badira paperean idazten edo transmititzen ez diren istorioak. Ahozkotasanaren tinta ezabaezinez idazten diren pasarteak. Bizidun eta bizigarriak diren uneak.

Izan badira aurrean aurpegi edo begirada bat behar duten kontualariak. Aurrierantz edo atzerantz tiraka jarraitzeko galdera sortak behar dituzten bidaiariak. Eskuen sendotasuna edo berrakadaren epela behar duten bizidunak. Eta agian, horrek ere asetzen nau unean.

Akaso, lehendik gauzatu bai, baina kontzienteki bizi ez nuen irakurtzeko beste modu bat identifikatzen hasi berri naiz. Agian eta soilik agian, hau guztia ere, bada idazten eta irakurtzen jarraitzeko modu bat.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
RPS: 28/17  
20170  
USURBIL

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

guria

guria

taberna

orain  
22:00ak arte irekita!

PLATER KONBINATUAK,  
HANBURGESAK,  
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK,  
RAZIOAK...

*Ondo pasa  
Santixabeletan!  
egin zure eskaerak  
etxera eramateko!*

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

☎

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK  
OBRAK  
BERRITZE LANAK

*Ondo pasa  
Santixabeletan!*

IT-ak egiten  
dira

urdaintzi@euskalnet.net

# Joxepo Artola, DYA: “Gure boluntarioek dena eman dute pandemian”

Irribarrea ahoan iritsi zen elkarrizketara. DYAko kamiseta soinean, umoretsu. Hala ere, badaki serio jartzen eta gauza interesgarri ugari azaldu zizkigun. Pasarte batzuk jaso ditugu orriotan. Elkarrizketa osoa [noaua.eus/bereziak/kafe-garaia](http://noaua.eus/bereziak/kafe-garaia) helbidean aurkituko duzue.

**NOAUA! Aldizkariaren urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte?**

**Joxepo Artola Zuloaga:** Orain 25 urte, hilabete honetan zertan ari nintzen ez dakit, baina ondo gogoan dut urte horretako abuztuan non izan nintzen. Biescaseko kanpaleku batean ezbehar gogor bat egon zen. Ohean nintzela, Eusko Jaurlaritzatik deitu zidaten, jendea behar zutela koordinazio-lanak egiteko. Alaba txikia zen, sei hilabete izango zituen orduan. Emazteari esan nion, Biescase-ra noa. “Non dago hori?”, galdetu zidan. Ba ez dakit, Huesca aldean, erantzun nion.

**Asko luzatu al zen egonaldia?**  
“Joan eta etorri, segituan bueltatuko naiz”, horixe esan nion emazteari. Baina uste baino gehiago luzatu zen. Bi egun oso



“Horrelako egoera bati aurre egiteko ez geunden prestaturik, baina egokitu egin gara. Jende guztia bezala, ezta?”.

## JOXEPO ARTOLA

**“Etengabe behar berrietara egokitu behar izan gara. Lan polita izan da baina oso gogorra”**

pasa nituen lorik egin gabe. Lan eta lan.

**Beste ezbehar handi bat bizi-tzen ari gara orain. Maila pertsonalean, nola eraman duzu pandemiak ekarri duen guztia?**  
Ez naiz asko konturatu, egia esan. DYAko lana koordinatzen ibili garelako, topera. Eguna pa-

satzen genuen oso erraz. Nik zorte handia daukat gainera, baserri batean bizi naizelako. Itxialdia, maila pertsonalean, ez dut hain gogor bizi izan. Alde horretatik, ez da hainbesterako izan.

Horiz jantzitako arlo horretan aldiz, oso gogorra izan da. Momentu oro sortzen zen behar arraro bat, ezohikoa. Oso prestatura gaude jarduera ezberdinak egiteko, baina horrelako egoera bati aurre egiteko ez. Etengabe behar berrietara egokitu behar izan gara. Lan polita izan da baina oso gogorra. Aukera hau aprobetxatu nahi dut herritarrei

eskerrak emateko. Biztanle zoragarriak ditugu. Beraiei esker bizi da DYA. Gure aurrekontuaren %90a biztanleen ekarpenarekin osatzen da. Bazkide mota bat hori da. Beste bazkide mota bat boluntarioarena da. Eta gure boluntarioek dena eman dute. Oso gogorra izan da. Baina polita ere bai, pandemiari erantzun bat emateko gai izan garelako. A-tzera begira jarrita, gauza asko egin ditugu. Alde horretatik, zoragarria izan da. Horrelako egoera bati aurre egiteko ez geunden prestatuta, baina egokitu egin gara. Jende guztia bezala, ezta?

## “Jostun taldeari omenaldi bat egin behar zaio”

**NOAUA! Herritar batzuk ere asko inplikatu dira pandemian, ezta?**

**Joxepo Artola Zuloaga:** Usurbilen bada jostun talde bat. Maskarak josten aritu dira, patrioiak egiten,... Emakume hauei omenaldi bat egin behar zaie. Eta beste bi pertsonen ekarpena ere azpimarratu nahi nuke. Bego, hemengo mertzeriakoa, eta

Joxean Rodriguez. Joxeanek bizitza osoa eman du oihalekin representante bezala lanean. Nire etxera igo zen, konfinamendu batean, oihalak ekartzera. Biltzarian zuen dena ekarri zigun, guk behar bezala banatu ahal izateko.

**Herritarrek eskuzabal jokatu dute hortaz?**

Politza izan da. Gipuzkoarrok

hori barruan daukagu, eta beti goraiatzen dut ezaugarri hori. Oso momentu zailak pasa ditugu eta jendea laguntzeko prest egon da... Emozionatu egiten naiz... Jendeak eman digun indarra, hori zoragarria izan da. Jendea deika izan dugu, “zerbait behar baduzue esan eta ahal dudana egingo dut”.

**Horrelako dei asko jaso dituzue?**

Pila bat. Sare sozialen bidez mezu bat zabaldu genuen, “maskarak egin nahi ditugu”. Erantzuna ikaragarria izan zen. Materiala ez genuen baina koordinazioan eta logistika arloan gaitasun handia daukagu. Pandemiaren konturatu gara horrelako ezbehar baten aurrean logistikak ze indarra hartu duen eta ze garrantzitsua den.

## “Profesionaltasuna ez dago soldatan”

**NOAUA!** Gipuzkoako DYako presidenteordea zara. Askok uste dutenaren kontra, zu ez zara liberatu bat. Zure ogibi-dea beste bat da.

**Joxepo Artola Zuloaga:** DYatik behin ere ez dut sosik kobratu. Baina horrek ez du ezer esan nahi. Nik beti esan izan dut profesionaltasuna ez dagoela soldatan. Nirekin ibili diren guztiei beti esan izan diet pertsonekin aritzen garela. Eta ondo aritzeko, seriotasun handiarekin hartu behar direla gauzak.

Dena den, jende pilo bat dago inplikaturata, arlo askotan. Nik horiz janzteko aukera hautatu nuen.



“Jende pila bat dago inplikaturata, arlo askotan. Nik horiz janzteko aukera hautatu nuen”.

**Nondik datorkizu DYAn aritzeko bokazioa?**

1987an, nire ama oso gaixorik jarri zen. Hiru hilabete egin zituen ospitalean. Han pasatzen nuen gaua eta, kasualitatez, bere leihoak urgentzietara ematen zuen. Handik ikusten nituen horiak eta gorriak, hara eta hona. DYakoak eta Gurutze Gorrikoak. Halako batean amari esan nion, “hemendik ateratzen zarenean hor sartuko

### JOXEPO ARTOLA

**“DYakoak  
pertsonekin  
aritzen gara.**

***Eta ondo aritzeko,  
seriotasun handiarekin  
hartu behar dira gauzak”***

naiz zer edozer egitera”. Ni Lasarte-Orian bizi nintzen orduan, eta DYA sortu berria zen orduantxe. Hara hurbildu eta

esan zidaten txoferrak behar zituztela. Horrela hasi nintzen DYAn. Ezer ez eta festa!

**Zure seme-alabak DYako pe-toarekin ikusi izan ditugu, asistentzia-lanak egiten. Transmisio lan hori egitea erraza izan al da?**

Seme-alabek txikitatik bizi izan dute. Mikel erizaina da orain eta ZIU lanean pasa du Covid osoa. Laguntzeko joera dugula ikusi dute etxean, baina behin

ere ez diegu DYAn sartzeko eskatu. Modu automatikoan izan zen. Sorospen ikastaroa eskolan ikasi behar dela esaten entzun naute. Parean ezbehar bat tokatu denean, aurreneko asistentzia emateko gai naizela ikusi dute... Uste dut hortik datorkiela txip aldaketa. Behin semeak esan zidan: “aita, sorospen ikastaro bat egingo dut”. Oso ondo. “Sorospen ikastaro bat egingo dut, baina ez naiz DYAn sartuko”. Kar, kar, kar.

## “Administrazioan dauden batzuei galdetuko nieke ea beraiek zeinentzako egiten duten lan”

**NOAUA!** Pandemia hasi zenean, material falta handia zegoen eta zuen biltegietan jasota zenuten guztia Osakidetzaren esku utzi zenuten. Buzoak, maskarak edota eskularruak. Orain urtebete, hauxe adierazi zenuen egunkari batean: “Eusko Jaurlaritzari materiala berreskuratzeko laguntza eskatu diogu, baina ez da ezer iritsi”. Dagoeneko iritsi al da?

**Joxepo Artola Zuloaga:** Ez da iritsi.

**Oso arraroa da hori, ezta?**

Bai, arraroa da. Uste dut gainezka daudela –hori pentsatu nahi dut–, edo ezin dutela, edota beste zeregin batzuetan daudela orain... Baina lotsagarria da. Pandemia hasi zenean, dena eman genuen, gordeta genuen dena, eta ikustea ez dela ezer iritsi bueltan... Amorr handia ematen du.

Denetarik dago, hala ere. Foru Aldundiarekin izan dugun elkarlana izugarria izan da. Lan

talde zoragarri bat topatu dugu. Hala ere, eta administrazioaz ari garenez, horiz jantzita gaudenoi behin ere ez zaigu ahaztu behar zeinentzat ari garen lanean. Biztanleentzako egiten dugu lan. Horrek balio du. Eta beti egongo gara laguntzeko. Administrazioan dauden batzuei galdetuko nieke ea beraiek zeinentzako egiten duten lan. Hori ez ahazteko behin ere.

**Zuen kasa erosi beharko duzue**

**material hori orduan?**

Bai, eta erosi egingo dugu. Baina begira, Hernaniko enpresa batek ez dakit zenbat eskularru kaxa eman zizkigun. Laguntza alde horretatik iritsi zaigu, enpresak eta biztanleak inplikatu direlako. Beharrezkoa izan denean, gure materiala eskaintzeko gai garela ikusi dutelako. Beharra duenari laguntzeko prest gaudela ikusi dutelako.

## Uztaileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

## Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Maskarillarik gabe aske sentitzen zara azkenean!

Hileko aholkua: Gomak ebaki banizkio, nirea izango zen, ez zuen alde egingo... Baina horrela, ez zen gehiago maskarilla izango... Eta nik, maskarilla nuen... maite?

**CANCER**

Zure urtebetetzea maskarillarik gabe ospatzeko aukera izango duzu, hori bai oparia! Hileko aholkua: Ez dakit familia eta lagunak musukorik gabe ezagutuko dituzun!

**LIBRA**

Non zeuden duela mende laurden? Galdera hori garrantzitsua izango da hilabete honetan zuretzat.

Hileko aholkua: NOAUA!k sorpresa bat baino gehiago emango dizu...

**CAPRICORNIUS**

Non geratu dira itxialdian egiten zenituen zientoka bizkotxo eta ogiak? Ez zara ba "bainujantzi operazioan" egiten arituko, ezta?

Hileko aholkua: Kaloria gutxiago zenbatu eta gehiago gozatu!

**TAURUS**

Bigarren urtez ezingo dituzu ohiko festak ospatu eta pixka bat amorratuta egongo zara.

Hileko aholkua: Ez, ezin duzu festetako maskota izan!

**LEO**

Gero eta gutxiago falta zaizu oporrak hartzeko, baina egunak luuuuuuuzeak egingo zaizkizu.

Hileko aholkua: Opor giroa aurreratzeko joan zaitetz lanera bainujantziarekin, txankletekin eta eguzkitik babesteko krema emanda!

**SCORPIUS**

Dantzarako gogo biziz zaudete eta gustura parte hartuko zenuke erromeria batean...

Hileko aholkua: Aizu, balkoian fandangoa eta arin-arina ere ederki dantzatzeko dira; noiz egingo dugu zita?

**AQUARIUS**

Ondo dago Santixabeletako goiak edukitzea, baina horrek ez du esan nahi dramatiko izan behar duzunik.

Hileko aholkua: Begiratu alde onetik: datorren urtean buruhandi bezala ateratzeko egun bat gutxiago falta da!

**GEMINI**

Uztailan maitasun kontuak aldeko izango dituzu, beraz, aprobezatu!

Hileko aholkua: Ausartu berarekin kafe bat hartzen, Puntapaxeko paseo erromantikoa bat ematen edota Arratzainetik ilunabarra ikusten.

**VIRGO**


Hilabete honetan eguzkia eta hondartza zure lagun kuttunak izango dira.

Hileko aholkua: Kontuz ibili lehen egunetan frijitutako langostino bat eman nahi ez baldin baduzu!

**SAGITARIUS**

Ondo dago gaupasak berreskuratzea, baina bizilagunekiko errespetua izatea ere garrantzitsua da.

Hileko aholkua: Hurrengoan baxuxeago abestu "Usurbildarrek daukate, sagardo alkatete!". Sagardoa beharrea ura botako dizute!

**PISCIS**

Kezkatuta zaudete zure "hondartzarako gorputzagatik", baina lasai egon, planetak zure alde daude eta.

Hileko aholkua: Gorputz bat baduzu? Ba, zorionak, dagoneko baduzu hondartzarako gorputza!





943 530 337  
607 119 313



Ondo pasa festetan!

- gremioen koordinaketa ·berritze lanak
- sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekaxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

# AIZPURUA

## OKINDEGIA



OGIAK  
GOZOGINTZA  
TARTAK  
ARDOAK

*Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

**KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20**

Ondo pasa Santixabeletan!!



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
**BIZIRIK**

# ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26  943 361 114 [alkartasuna@usurbil.eus](mailto:alkartasuna@usurbil.eus) [www.alkartasunausurbil.eus](http://www.alkartasunausurbil.eus)

# Txokoargi zabalik da

**T**xokoargi jaio da. “Ez dut dudarik urte luzez jarraituko duela auzoa argitzen, berpizten, auzoa bizitzen eta auzoa egiten. Bejondeizuela Txokoalde, eta goza ezazue osasunez”, luzatu zien gonbita Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak txokoaldetarako, larunbat eguerdian garai bateko Akerra gaztetxe eraberrituaren, aurrerantzean Txokoargi izena izango duen auzo ekipamendu berriaren irekiera ekitaldian.

“Hitzik gabe geratu gara hau ikusita”, zioen egitasmo honen sorkuntza prozesuan parte hartu duen auzokide Nerea Zinkunegi. Bere esanetan, etapa bat itxi da, eta berri bat ireki. “Txokoargi izeneko auzo ekipamendu edo gune hau daukagu auzotarrek gozatzeko. Ikusten duzue, oso polita, oso elegantea dago. Ia denon artean erabilera polit bat ematen diogun eta auzoa biziberritzen dugun”, gaineratu zuen.

## Zailtasuna, aukera

240.000 euroko inbertsioa bideratu du Usurbilgo Udalak



240.000 euroko inbertsioa bideratu du Usurbilgo Udalak Txokoargi auzo ekipamendura.

## NEREA ZINKUNEGI

**“Ia denon artean erabilera polit bat ematen diogun eta Txokoalde biziberritzen dugun”**

Txokoargi auzo ekipamendura. 80.000 euroko laguntza jaso zuen Udalak, Eusko Jaurlaritzak landa eremuko auzo ekipamendu berriak sustatu edo daudenak eraberritzeko plazaratzen duen lerrotik.

Pozik agertu zen Usurbilgo alkatea irekiera honen aurrean. “Bidea ez da erraza izan”, zioen, gazitik hasi arren, “amaiera gozoa” izan duela egitasmoak. Eta bidea gozatzeko gakoa, lankidetzak izan dela.

Gogora ekarri zituen, 2019. urte amaieran abian jarritako egitasmoaren nondik norakoak. Nola orduko Akerra gaztetxean okupak sartu ziren, egoera zail hura ordea aukeran bilakatu eta “gu guztion esku zabaltasun eta konpromisioari

esker Akerra auzo ekipamendu bihurtzeko prozesuari ekin genion”.

Hiritik At kooperatibako ki-deen laguntzarekin parte hartze prozesu bat bideratu zuten, egungo auzo ekipamendua definitzeko. “Auzoaren beharrak, gabeziak, hutsuneak, aukerak eta indarguneak identifikatu eta eraikin hau ekipamendu hau zertarako behar ote genuen pentsatzen hasi ginen, erabilera posibleak zehaztu genituen”.

## Udala: “Txokoaldeko auzoarekin hartutako konpromisioa bururaino eramán dugu”

Irekiera egun hau nahi baino gehiago atzeratu dela zioen Agurtzane Solaberrietak, bizi dugun pandemiagatik. “Asko baldintzatu gaitu udaletxean; tartean udalaren finantzia-zioa asko murriztu zaigu”. Eta ondorioz hainbat inbertsio bertan behera uztea eragin du, ez ordea Txokoaldekoa. “Txokoaldeko auzoarekin hartutako konpromisioa bururaino eramán dugu”.

Legealdi hasieratik eta Legealdi Planean jaso bezala,

auzoak biziberritzeko finkatua duten lehentasunaren baitan kokatzen du Udalak iragan asteburuko irekiera. “Ez dugu Kaxkoa eta auzoen arteko desberdintasunak asko areagotzerik nahi. Auzoek ere nortasun propioa, ezaugarri, behar eta errealitate propioak dituzte eta horietan hain zuzen ere saiatzen ari gara arreta jartzten. Komunitatearekin ari gara elkarlanean, izan Aginagan, Zubietan, Kalezarren, Santuenean edo Txokoalden”.

Prozesuon onurak goraiatu zituen alkateak. “Auzoetako sare komunitarioa josi eta belaunaldi arteko harremanak sortzen dituzte. Gaurko argazkia ikusi besterik ez dago, harreman horiek sendotu egiten dituztela. Elkarri entzunez, elkar ezagutzeko aukera ematen digutela. Azken hilabeteotan Txokoalden egin duguna bada horren adibidea”.

## Prozesu soziala

Txokoargi proiektua horren guz-

tiaren emaitza da udal gobernu taldearen esanetan. “Gure ustez auzoetan garatzen ari garen prozesu hauek, prozesu sozialak dira eta auzoen kohe-sio sozialean laguntzen dute, bizikidetzan sakontzen, auzo komunitate osasuntsuak, aktiboak, ekintzaileak, konprometitua eratzten laguntzen dute, eta guretzat garrantzitsua dena, udalaren eta auzoen arteko harremanean sakontzen eta elkarlan hori iraunkortzen laguntzen digute”.

edaritegia  
BORDATXO edaritegia

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

ondo pasa  
Santixabeletan!!

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

*Olarrondo  
jatetxea*

ASTE BURUETAN...  
EGUNEAN ZEHAR **TABERNA IREKIA!**  
ZATOZ GURE TERRAZARA!


OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDE **GAUETAN  
ERE JATETXEA IREKIKO DUGU!**  
AFAL EZAZU GURE TERRAZAN EDO JANGELAN  
ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EZAZU!



626 686 036 [www.olarrondojatetxea.com](http://www.olarrondojatetxea.com)


Ondo pasa  
Santixabeletan!

Etiena Ramon



**Atallu**  
AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
DOHAINIK IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua



**EuroTaller**

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / [atalluautoak@gmail.com](mailto:atalluautoak@gmail.com)

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA

Ondo pasa  
Santixabeletan!



**G15 USURBIL**  
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**SALEROSKETA & ALOKAIKURAK**  
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 [info@g15usurbil.com](mailto:info@g15usurbil.com)  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

# Ingurumen arloko proiektuen aurkezpena Udalari

Ezohiko osoko bilkura ospatu zuten ekainaren 17an udaletxean. Alkatea buru zuena, baina zinegotzien eserlekuak Udarregi Ikastolako LH-ko maila ezberdinetako ikasleek hartu zituzten. Amaitu berri duten 2020-21 ikasturtean zehar ingurumenaren arloan landutako egitasmoak aurkeztu zizkioten Udalari. “Kanpoan ibiltzeaz gozatzeko aprobeztatu dugu. Eta egindako irteerei esker, Usurbilgo altxor ugari ezagutu ditugu”.



LH-ko ikasleek 2020-21 ikasturtean zehar ingurumenaren arloan landutako egitasmoak aurkeztu zizkioten Udalari.

Lehorreko ekosistemen baitan, basoen gaia landu dute, oka jolasa baliatuta adibidez. Ostadar Txokoa deitu diotena apaindu dute. Haritzak landatu dituzte Andatzan eta ikastolan, Andatza inguruko ondarea ezagutu ahal izan dute, zuhaitzez ikasten aritu ziren Arratzaindik Aginagara egin zuten txangoan...

Azken lau urteotan landu duten Eskola Agenda 21, orain

## LH MAILAKO IKASLEAK

**“Egindako irteerei esker, Usurbilgo altxor ugari ezagutu ditugu”**

Eskolako Agenda 2030 izatera igaro da. “Hemendik aurrera, mundu mailan ezarri diren garapen jasangarrirako helburuak ezagutzen arituko gara”.

## Datozen asteetan, baso mozketa Andatzan

Intsignis eta itsas pinuz osatutako basoa moztuko dute datozen asteetan Andatzan. “Guztira 13 hektarea inguruko eremuan ariko da eta bi hilabete iraun dezakete lanek”, ohartarazi du Usurbilgo Udalak. Lanok Arrospide SL enpresari esleitu dizkio Gipuzkoako Foru

Aldundiak. “Armiarmategi eta Erroizpe inguruko magaletan dagoen 59 urteko basoa da moztuko dutena, eta 4.167,18 m<sup>3</sup> egur ateratzea aurreikusi dute”, zehaztu du Udalak. Epe laburrean hasiko dira lanean, eta bertatik ateratako egurra Txokoaldetik eta Santuenetik aterako dute, San Estebandik barrena.

# Udal diru-laguntzen ebazpenak eman dira argitara

Uztailaren 9ra arte zabalik izango da euskara ikasten ari direnentzat nahiz aisialdiko begirale edo zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroren bat egin dutenentzako Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdietara aurkezteko epea.

Bestalde, nekazaritza, abeltzaintza, ingurumen, kirol nahiz kultur arloko diru-laguntza deialdietara aurkezturiko eskabideei erantzun die Usurbilgo Udalak. Ebazpenak ekainaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu ditu. 10 eguneko alegazio epean dira hilaren 25etik.

## Nekazaritza eta abeltzaintzako diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera kopurua: 14.

■ Onartutako laguntza guztira: 10.752,97 euro.

## Ingurumeneko diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera kopurua: 16.

■ Onartutako laguntza guztira: 4.999,98 euro.

## Kiroleko ohiko diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera kopurua: 9.

■ Eskatzaileak: Tximeleta, Buruntzazpi, Beterri Sub, Usurbil FT, Usurbil JC, Makax, Pagazpe, Usurbil KE, Zubieta PE.

■ Onartutako laguntza guztira: 45.000 euro.

## Kirol egokitutako jardueretarako diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera

kopurua: 1.

■ Eskatzaileak: Pagazpe Pilota Elkarte.

■ Onartutako laguntza guztira: 1.214 euro.

## Kirol elkarte ez direnek antolatutako kirol jardueretarako diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera kopurua: 2.

■ Eskatzaileak: Einean Guraso Eskola, San Praixku Guraso Elkarte.

■ Onartutako laguntza guztira: 630 euro.

## Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntzak

■ Aurkezturiko eskaera kopurua: 2.

■ Eskatzaileak: 19 (besteak beste, Nafartarrak, Orga-

noaren Lagunak, San Praixku Guraso Elkarte, Ziortza Gazte Elkarte, Antxomolantxa Kultur Elkarte, Einean Guraso Eskola, Zumarte Musika Eskola, Santuenea K.E., Jexux Artze Kultur Elkarte, Zubietako Eskolako Guraso Elkarte, Bidean Agiñarron Herri Elkarte, Orbeldi Dantza Taldea, NOAA! Kultur Elkarte, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte, Zubieta Lantzen...).

■ Diruz lagundutako ekin-tzak: 64.

■ Onartutako laguntza guztira: 64.892,38 euro.

## Informazio gehiagorako:

Ekainaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

# Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

## HARATEGI-URDAITEGIA


Harategiko aukera Zabala: behi txuketa, txahal entrekota, txuleta kostilla eta abar, eta ez ahaztu gure prestatuak:

**OSATU ZURE MENUAK! AUKERA ZABALA!**

Zuentzat prestatutakoak!



ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81

 677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com



·EGUNEKO MENUA: (astelehenetik ostiralera)

·EGUNEKO PLATERA · ASTEBURUKO MENUA · KARTA

· RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA (08:00-17:00 eta 20:00-22:30)

OSTIRALETAN (08:00-17:00 eta 20:00-23:30) LARUNBATEAN (10:00-23:30)

IGANDETAN (10:00-21:30)

**TERRAZA ZERBITZUA ETA ETXERA ERAMATEKO ERE!!**



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

# Josue Igeltseritza

 606 37 21 05

Ondo pasa  
Santixabeletan!!!

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

## Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

# Kultur Birak ordezkatu du Santixabel jaietako egitaraua

## Uztailak 1, osteguna

■ 17:00 Kolore festa Oiardo Kiroldogian.

■ 22:30 Neona eta Amak taldeen kontzertuak Udarregi Ikastolako karpa gunean.

## Uztailak 2, ostirala

■ 18:00 Aupa Strings taldearen emanaldia Oiardo Kiroldogian.

■ 19:00 Bertso-saioa udaletxe aurreko Joxe Martin Sagardia plazan. Bertsolariak: Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

■ 22:30 Bertso-gaua Udarregi Ikastolako karpagunean.

## Uztailak 3, larunbata

■ 10:00 Iratxoen oparien bila herrian barrena.

■ 17:00 Gazte olinpiadak Mikel Laboa plazan.

■ 22:30 Mihise eta Rotten XIII taldeen kontzertuak Udarregi Ikastolako karpa gunean.

## Uztailak 4, igandea

■ 18:00 Orbeldi Dantzan III (helduen emanaldia) eta Puro Relajo Artzabalgo frontoian.

■ 22:30 Bulego taldearen kontzertua Udarregi Ikastolako gunean.

## Uztailak 9, ostirala

■ 20:00 Ugaitz Agirreren “Non dago Amaia?” saioa + Viafara taldea kontzertuan, Aginagako Eliza Zaharrean.

Zehaztasunak: “Amaiak ezkutatetan jolastu nahi, eta zenbatzen hasterako, desagertu da begien bistatik. Pailazoa metropoli zoroan murgildu da ‘non zaude Amaia?’ oihuka eta oihuka, baina neskatoaren arrastorik topatu ezinda. Bestalde, Viafara 2019an eratzen hasi ziren musika taldea da. Su



Aupa Strings taldeak musika klasiko, heavy metala edota bluesa era naturalean uzartzen ditu. Gaztetxoei zuzenduriko saioa eskainiko dute Santixabel egunean, 18:00etatik aurrera Oiardo kiroldogian.

## UZTAILAK 3 LARUNBATA, GAZTE OLINPIADAK

**Herriko gazte eragile ezberdinen eskutik, Mikel Laboa plazatik hasita herrian zehar talde txikitan erronka ezberdinak egingo dira**

txikian eta maitasun osoarekin gauzatzen ari den proiektua dugu. Taldea Patxi Gabilondo (baxua eta ahotsak), Aritz Zabaleta (gitarra eta ahotsak), Jon Guadix (gitarra eta ahotsak) eta Iñaki Irazustak (bateria eta ahotsak) osatzen dute. Rock and rollak hiltzen jarraitu behar du!”.

Edukiera: 65 lagun.

Sarrerak: uztailaren 7ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herriar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

## Uztailak 10, larunbata

■ 12:00 Giza proba: herritarren arteko “desapiyua” Dema plazan.

Zehaztasunak: “Goizeko saioan herritarren arteko desapiyo ederraz gozatzeko aukera izango dugu herriko Dema plazan”. 1800 kiloko Ur Epel harritik tiraka ariko dira 20 minutuz bi hirukote hauek:

1. hirukotea: Aitor Alkorta Etxeberria, Iurgi Mendiluze Zuloaga, Berdaitz Larrarte Zu-

loaga.

2. hirukotea: Aimar Zuloaga Seguro, Imanol Zaldúa Unanue, Gabi Sarasola Ibarгойen. Edukiera: 135 lagun.

Sarrerak: uztailaren 8ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herriar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

■ 18:00 Aizkolari eta harri-jasotzaileen lehia Usurbilgo frontoian.

Zehaztasunak: “Arratsaldeko saioan kronometroaren beharrik ez da izango. Aizkolari eta harrijasotzaile banaz osaturiko bi bikote hauek ariko dira lehia bizian. Hiru harri ezberdinekin jardungo dira harrijasotzaileak eta aizkolariek hiru

froga egingo dituzte: kolpekoa, azkartasunekoa eta konbinatua. Erronka ederra Ostolaza harri eskolatik datozen Udane eta Gorka Etxeberria eta Esnal anai aizkolarien artean gauzatu dute.”.

Edukiera: 135 lagun.

Sarrerak: uztailaren 8ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herriar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

## Uztailak 11, igandea

■ 20:00 Andoni Egaña bertsolariaren eta Jon Ostolaza trikitilariaren “Neretik” emanaldia Santuenean.

Edukiera: 67 lagun.

Sarrerak: uztailaren 9ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herriar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

Informazio gehiagorako eta egitarau osoa: usurbilkultura.eus

Antolatzaileak: Kalezar, Aginaga, San Esteban, Atxegalde, Santuenea eta Usurbilgo jai batzordeak; Xauxar Txosna Batzordea; Ziortza K.E.; Hitz-Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak; Usurbilgo Udala; NOAUA! K.E.

## Mihise, Udarregiko karpan



Mihise rock taldeak tailer musikatua eskaini zuen DBH-ko ikasleentzat, aurtengoan Ikastola Eguna ordezkatu duen Ikastola Astean.

Uztailaren 3an larunbata, Rotten XIII taldearekin batera Udarregiko karpa gunean kontzertua eskainiko du Mihisek, 22:30ean hasita.

*Ondo pasa Santixabeletan!*

# Aizpurua Autobusak

25 urtez Noaua! babesten

[www.autocares-aizpurua.es](http://www.autocares-aizpurua.es) 943 36 32 90 Faxa: 943 36 32 96

aldizkariak  
ESKU-ORRIAK  
liburuak  
katalogoak  
AGENDAK  
**kartelak**  
EGUTEGIAK  
papeleria  
koadernoak  
LOGOTIPOAK

**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

DISEINU EDITORIALA

**GORA  
SAN  
TIXA  
BEL  
AK**

**antza**

Zirkuitu Ibilbidea 2 / 20160 LASARTE-ORIA · Tel: 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

# SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

**Uztailak 9, OSTIRALA**  
**FRUTA ARBOLEN UDAKO EDO**  
**BEGIKO TXERTAKETA**  
Josu Osa

**ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea**



**SARRERAK:** aldez aurretik  
[usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.







**ANORGA TXIKI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Beirazko itxitura sistema berria!!  
perfil bertikalik gabe!!  
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
aukera zabalak!

Ondo pasa Santixabeletan!

seeglass one  
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak dutxa-itxiturak eta irristailuak  
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



**Uraitz, s.l.**

Ondo pasa Santixabeletan!!

**Igeltseritza  
Orokorra**

Telefona  
**693 05 93 92**  
**943 56 66 40**

uraitz@uraitz.com  
Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

# Laboaren Uztaila ate joka

**B**akarleri nahiz sortzaile talde txikien erakusle-  
hoa zabaltzera doaz. Badator seigarrenez, Laboaren Uztaila. Olor proiektuak abiaraziko du zikloa datorren astean.

## NOAUA! Zein da Olor?

**Jokin Azpiazu Carballo:** Proiektu xume hau duela urte batzuk abiatu nuen, lehen kontzertua 2017an eman nuen. Urte dezentez aritu izan naiz musika taldeetan jotzen eta nahi nuen egin zerbait bakarka. Batzuetan taldeetan jotzean, inork ez du guztiz egiten berak nahi duena. Proiektu hau musika elektronikoa eta esperimentalaren inguruan mugitzen da. Egin ditut kontzertu gutxi batzuk eta disko bat baina erritimo lasaian eta oso nire airean.

## Nola irudikatu behar dugu Usurbilgo zure emanaldia?

2019ko azaroan eman nuen azken kontzertua. Pandemian erabaki kontzientzia bat izan zen ez nuela emanaldirik egingo. Usurbilgoa izango da lehenengo kontzertua. Ez dut asmo askorik lehen egiten nuen berdin berdina egiteko eta agian kantu berriren bat aurkeztuko dut, hor bueltara ibili dena azkenean hilabeteetan, eta inprobisazio apur bat, testuren batzuk, agian Laboari keinuren bat...



Uztailearen 8an abiatuko da zikloa, OLOR bakarleriaren kontzertuarekin. Argazkia: Fidel Poochojo.

## JOKIN AZPIAZU, 'OLOR'

**“Nire emanaldiak beti izan dira fisikoki intentsoak eskenatokian eta saiatzen naiz ere publikoarekin harreman bat izaten”**

Ahalik eta emanaldi librean izaten eta gozatzeko saiatuko naiz, larregizko planifikaziorik egin gabe.

## Pandemia garaiko lehen kontzertua. Testuinguru hau nolako izaten ari da sortzaileontzat?

Niretzako egoera ez da zaila izan, musikarekin izan dudana harremana beti izan da nik

nahi izan dudana, ez naiz profesionalki honetara dedikatu. Orduan ezin dut nire burua alderatu, musikatik bizitzen ari diren pertsonen egoerarekin. Ez dut gustuko etenaldi bat egitea, baina ezta ere ez dit suposatzen bizimoduari begira, horrenbesteko aldaketarik. Egia da hasierako hilabeteetan ez nuela lortu ere etxean sormena lantzerik, halako sormen blokeo txiki bat izan nuen. Uste dut ez dela nire kontua bakarrik izan, jende gehiagori gertatu zaiola. Halako egoera arraro batean, batzuetan zaila da zentratzea, baina bestela aprobetxatu ditut bai, azkenean hilabeteak sorkuntzarako apuntetxoak hartzeko.

## Nola nahi zenuke publikoak parte hartzea, Usurbilgo emanaldian?

Nire emanaldiak beti izan dira fisikoki intentsoak eskenatokian eta saiatzen naiz ere publikoarekin harreman bat izaten. Usurbilgo emanaldian jendea eserita egongo denez, hortik dator zerbait berezia egiteko asmoa, seguraski normalean egiten dudana baino saio erlaxatuagoa izango da. Testuinguru horri erantzuten saiatuko naiz. Ez ditut betiko abestiak joko, ez dut betiko eskenatokiko jarrera edo eskenatokiko gorpuztasuna agertuko, beste zerbait saiatuko naiz egiten. Niretzako bereziki erronka bat da, ia zer ateratzen den.

## “Denak dira oso artista interesgarriak”

**NOAUA! Eskertzekoa izango da, bakarleri gisa bidea jorratzen ari zaretenontzat Laboaren Uztaila bezalako zikloetan parte hartu ahal izatea.**

**Jokin Azpiazu Carballo:** Niretzako interesgarria da eta oso ekimen polita ikusten dut. Suposatzen dut jende askok bezala, badut lotura bat Laboarekin, bere musikaren eta

bere eskenatokiko jarreraren bidez. Niretzako oso artista garrantzitsua da, bereziki bere alderdi esperimentalaren oso zalea naiz eta niretzako badago ohore txiki bat Laboaren Uztaila deitzen den ziklo horretan parte hartzea. Nirea ez da beti irudikatzen duguna bakarleri formatuan. Hiru pertsona ibiltzen gara, ni neu eskenatoki gainean

musikarekin, Ander Barriuso soinuarekin eta Maialen Belaustegik irudiak egiten ditu. Nire atzetik ariko dira, Ibon eta Enrique, Aire ahizpak, Garazi Navas. Denak dira oso artista interesgarriak, oso ziklo polita geratu da.

**Emanaldietarako izen ematea**  
Laboaren Uztaileko emanaldietarako izena aurrez bide-

ratu ahal da usurbilkultura.eus plataforman.

## Aurtengo eskaintza

Kontzertuak ostegun gauean 22:00etan Mikel Laboa plazan:

- Uztaileak 8: OLOR.
- Uztaileak 15: Ibon RG eta Enrique Hurtado.
- Uztaileak 22: Aire ahizpak.
- Uztaileak 29: Garazi Navas.

# TXIRIBOGA

## TABERNA

### RAZIOAK ETA PINTXOAK

Ondo pasa Santixabeletan!

IRAZU KALEA 6, USURBIL



# ARRANDEGIA PELLO

Ondo pasa Santixabeletan!

EGIN ZURE ESKAERAK  
WHATSAPP-ETIK!

ORDUTEGI ETA  
TELEFONO BERRIA

ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

Ondo pasa Santixabeletan!

# INTZA

ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

formularen % 80 jatorri naturala

## Kolorazio iraunkor naturala ile eta buruko larruazala zainduz

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

# Gaztetxeaz hausnarrean

**G**aztetxea zertarako? Aldarripean, bi hausnarketa saio antolatu zituen iragan astean Aztarrika Gazte Asanbladak Askatasuna plazan. Larunbatean auzolannerako deia Andatzen. “Gazte Egunean sortutako proiektuaren harira” deitu dituzte jardunaldiok: “Gaztetxea eta emakumea\*” batetik. “Gaztetxea izango den espazio mixtoa, genero ikuspegitik landu dugu denon artean, giro ezinhobean. Generoari dagokionez espazio inklusibo bat sortze aldera jardun gara. Maskulinoa den eremu bat, feminismitik eraikitzerako bidea”. Gaztetxearen helburuez hausnarketa saioa ere antolatu zuten herri eragileekin.

## Gaztetxerantz

Azken hilabeteotan bidertzen ari diren prozesua aurrerabidean dute honenbestez. Gogoan izan, azaroko Gazte Egunean gazte espazioak eta autoestima izan zituzten hizpi-



Gazte Egunean sortutako proiektuaren harira deitu dituzte azken egunotako jardunaldiak.

## JARDUNALDIAK

**“Generoari dagokionez, espazio inklusibo bat sortze aldera jardun gara”**

de. Gerora, gai honi lotutako beste zenbait saio egin dituzte. Otsailaren 6an gaztetxeari forma emateko ekarpenen bilke-

ta saioa deitu zuten Udarregi Ikastolan.

Hilabete beranduago, martxoaren 15ean beste urrats bat eman zuten; “Gaztetxearen Prozesua, irudikatsetik ikusgai egitera” helburu duen dinamikan, lau gai jorratu asmo zituzten; prozesuko ekintzak, une nagusiak zehaztea, lan taldeak osatu eta lehen ekin-

tzak zehaztu eta prestatzen hastea. “Gaztetxea zertarako” aldarripean, jardunaldiak bideratu dituzte egunotan. Gogoan izan, Usurbilen izandako azken gaztetxea, Alkartasuna kooperatibaren egoitza ohia izan zen, egun babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen ari diren Ugartondoko eremuan kokatua zegoena.

## Ernaireren batzar nazionala



Ekainaren 20an Udarregi ikastolako patioan ospatu zuten batzar nazionala.

Ernai gazte antolakundeak Usurbil hautatu zuen ekainaren 20an, batzar nazionala egiteko. Gazte antolakundeak berak sare sozialen bidez zabalduko argazkia duzue albiste honi atxikitakoa. Hedabideotatik berri eman dutenez, “ikasturte honetatik ikaspenak

atera, udako zereginak landu eta aurrera begira jarri gara”, adierazi du Ernaik.

Datozen urteei begira hain zuzen. “Erronkaz betetako urteak datozkigu eta gazteok prest gaude erantzuteko, ekiteko momentua baita”, dio gazte antolakundeak.

## Zaintza ereduaz aztergai



Zaintzari buruzko partehartze prozesua martxan da.

Maiatzean martxan jarri zuten zaintza ereduari buruz hausnartuko duen parte hartze prozesuko talde eragilea. Iragan aste hasieran bildu zen bigarren Potxoenean. Tartean ziren “zaintzak profesionalki zein pertsonalki bizi dituzten he-

rritarrak eta erakundeak”, udaletik aditzera eman dutenez.

## Hurrengo saioa, irailean

Hilean behin bilduko dira, uztailan eta abuztuan izan ezik. Hurrengo saioa honenbestez irailean egingo dute.

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*Ondo pasa Santixabeletan!*

*ile apaindegi*

**mistoa**

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**Inaki Iturgintza**

*Ondo pasa festetan!!!*

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**600 024 825**

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

**mur**  
errotuluak

*Ondo pasa Santixabeletan!!*

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak  
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL  
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

**ZENDOIAENEA**  
taberna

*Zerbeza eta giro ona!  
Ondo pasa Santixabeletan!*

**GARAGARDO AUKERA!**

Kale Nagusia 35, Usurbil

# Ezohiko San Juanak Kalezarren

**P**andemiaren erruz, Kalezarko San Juanak ezohiko moduan ospatu ziren. San Juan Eskearekin eman zieten hasiera festei, ekainaren 23an, baina surik piztu ezinik.

Biharamunean, jai giroak aurera jarraitu zuen auzoan. Goizean meza nagusiak eta tokak hartu zuten protagonismoa, eta arratsaldean bertso-musikatuen saioa izan zen ekitaldi nagusia. Ekitaldirik jendetsuenetakoa izan zen hura, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga bertsolarien eskutik. Auzoko gaiak izan zituzten hizpide, Udarregi bertsolaria, musika eta abar, ordu eta erdiko saioan. Ixak Arruti izan zen gitarjolea eta Gari Otamendi, biolinista.

## Amebaren kontzertua

Ameba taldeak kontzertua eskaini zuen ostiralean. Oso ekitaldi arrakastatsua izan zen, eta karpa betetzea lortu zuten.

## Herri kirolak

Larunbata ere ekitaldiz bete-



San Juan bezperako eskearekin hasi zituzten ezohiko jaiak. Plazan ateratako talde argazkiarekin ekin zioten etxez etxeko birari.

riko eguna izan zuten Kalezarren. Goizean, Asier Pellejero eta Julen Olano aizkolariek ekin zioten erakustaldiari. Pellejero izan zen garaile lehen proban, 42 aizkorakadekin. Olanok 58 behar izan zituen lana amaitzeko. Gorka Etxeberria harri jasotzaileak hartu zien erreleboa harri baldarrarekin 7 jasoaldi eginda bi minutuan. Ondoren, 100 kiloko harri kubikoarekin aritu zen hiru minutuan 13 jasoaldi eginda. Etxeberriak atsedentxiki bat hartu bitartean, aiz-

kolarien arteko norgehiagoka egin zuten. 6 enbor ahalik eta azkarren moztan aritu ziren elkarren aurka, eta oraingo honetan, Olano gaztea gailendu zen 12:57ko denborarekin, ia minutu bat aterata Pellejerori 13:52ko denboraren aurrean. Harri jasotzailea arduratu zen agurra egiteaz, harri borobila-rekin plazako lau izkinatan lepoan bueltaka arituta.

## Maddi eta Malenen kantaldia

Arratsaldean ere pare bat ekitaldi izan ziren. Bakarrizketan

aritu ziren Portillo eta Ñako. Ondoren, Maddi eta Malenek kontzertua eman zuten karpan. Helene ere kontzertuan parte hartzekoa zen, baina azken momentuko arazoak medio, ezin izan zuen kontzertua eskaini.

## Ixabel Agirresaroberen saioa

Igandean, goizean ginkana egin zuten karpan, eta arratsaldean, berri, marrazketa tailerra eta Ixabel Agirresaroberen ipuin-kontaketa saioarekin amaitu ziren aurtengo jaiak.



Ameba taldea ostiralean aritu zen jaietako karpan.



Asier Pellejero, Julen Olano eta Gorka Etxeberriak erakustaldia eskaini zuten.



Maddi eta Malenek kantaldia eskaini zuten larunbatean.



Igandean Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria aritu zen Kalezarren.

# Udarregi

IKASTOLA



On do paga sant☆xabeΛak!!!

Λ ☆ x a b e Λ

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)

# KULTUR BIRA

USURBIL

2021 EKAINAK 11 - UZTAILAK 17

**UZT1:** Neona / Amak

**UZT2:** Aupa Strings / Bertso saioa: Miren Artetxe, Agin Laburu,  
Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita

**UZT3:** Mihise / Rotten XIII

**UZT4:** Puro Relajo / Bulego



Kultura hauspotu nahi eta behar dugulako  
[usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)



## “Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundera beste biderik bada?”

**K**risi garai bete bizi dugu, pandemiaren harago. Ondorio horretara iritsi dira Jakin, UEU eta Usurbilgo Udala. Gaiari sakon eta zabal heldu nahi izan diote, elkarlanean antolatuta duten Jakin Jardunaldian.

■ Ikastaro egunak: uztailak 15 eta 16.

■ Tokia: Udarregi Ikastola.

■ Ordu kopurua: 11.

■ Xehetasunak: “Mundua krisian dugu. Larrialdi klimatiko, ekologiko eta sozial bete-betean bizi gara. Kolapsatzear, diote aditu askok eta askok, nahiz eta horrela denik ez dugun sentitu. Zer datorkigu? Aurrerabideak aurrerabide izaten jarraitzen du? Eta zer bide dago ez bada desazkundera? Zer alternatiba



Uztailaren 15etik 16ra ospatuko da Jakin Jardunaldia.

ditugu abian Euskal Herrian?”

■ Matrikulazioa: maiatzak 17-uztailak 9.

■ Matrikula prezioa: 10 euro.

■ Oharra: “Covid-19 izarritu egoeran ikastetxeek jarraitu beharreko prebentzio-, segurtasun-

eta higiene-neurri berriak jarraituko dira gure egoitza eta jardueretan”.

■ Antolatzaileak: UEU, Usurbilgo Udala, Jakin Fundazioa.

■ Informazio gehiago: ueu.eus

## Hamaika hizlari hurbilduko dira

### Uztailak 15, osteguna

■ 09:00-09:30 Harrera eta dokumentazio banaketa.

■ 09:30-10:00 Ongietorria eta sarrera.

■ 10:00-10:40 Krisi sozio-ekologikoa, ekonomiatik haratago doan gaitz sistemikoa: Unai Pascual (ekonomilaria eta BC3ko ikertzaile eta Nazio Batuen Erakundearen Bioaniztasunerako eta Ekosistema Zerbitzuetarako Plataformako kidea).

■ 10:40-11:10 Ur berdearen garrantzia krisi klimatikoaren aurrean: Ane Zabaleta (hidrologoa eta UPV/EHUko irakaslea).

■ 11:10-11:30 Atsedena.

■ 11:30-12:00 Klima aldaketa eta kostaldeko arriskuak: Elisa Sainz de Murieta (geologoa eta BC3ko ikertzailea).

■ 12:00-12:30 Euskal Herriko ingurune naturalaren etorkizuna: Arturo Elozegi (UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia

Fakultatean irakasle katedraduna, Landareen Biologia eta Ekologia Sailean).

■ 12:30-13:00 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

■ 13:00-15:00 Bazkaltzeko tartea.

■ 15:00-15:35 Zer da bizitza erdigunean jartzea? Alternatiba antipatriarkalak arakatzen ekofeminismoetatik: Mirene Begiristain (ekonomilaria, agroekologian eta elikadura burujabetzan aditua eta UPV/EHUko irakaslea).

■ 15:35-16:10 Larrialdi klimatiko, metamorfosi ekologiko eta justizia sozialaren haritik borrokatzen: Sabine Endara eta Xabier Harluxet (Bizi! mugimenduko kideak).

■ 16:10-16:40 Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak: Belen Ausejo (Urbizi taldeko kidea).

■ 16:40-17:00 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

### Uztailak 16, ostirala

■ 09:30-10:05 Klima aldaketa, glaziarren ikuspuntutik: Ibai Rico (glaziologoa eta UPV/EHUko irakaslea) eta Eñaut Izaguirre (glaziologoa, UPV/EHUko irakaslea eta BC3ko ikertzailea).

■ 10:05-10:25 Abeltzaintza ustiaketa industrialaren ajeak. Nafarroako kasua: Lorea Flores (biologoa eta Hego Euskal Herriko Greenpeace-ko koordinatzailea).

■ 10:25-10:45 Esperientziak: Goener; Usurbil, atez ate.

■ 10:45-11:05 Atsedena.

■ 11:05-11:45 Esperientziak: Jauregia Etxaldea, Lurgaia Fundazioa.

■ 11:45-12:30 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

■ 12:30-13:00 Bukaera ekitaldia girotzeko, Eli eta Manex Pagolaren bertso musikatuena saioa.

## Euskotren, udako ordutegian

Udako ordutegia martxan du Euskotrenek. Zerbitzua indartu du larunbat, igande eta jai egunetan; ordu erdiro eskainiko dute 13:50-20:50 artean.

### Informazio gehiagorako:

euskotren.eus

944 333 333

## Aldaketak Lurreldebusen ordutegietan

Covid-19ari aurre egiteko neurriak arintzearen eraginez, asteburu gauetako zerbitzua luzatzea erabaki du Lurreldebusen.

■ Ostiraletan azken zerbitzuak: 23:40 aldera Donostiarantz; 23:45ean, 00:30ean eta 01:30ean Oriorantz.

■ Larunbatetan orduotan Donostiarantz: 23:40, 00:40, 1:40, 2:40, 3:40. Oriorantz: 00:00, 00:30, 01:30, 02:30, 03:30.

### Informazio gehiagorako:

900 300 340

lurreldebus.eus

## Zorione Mendezzen erakusketa

Alkizako Ur Mara museoan ikusgai izango ditu bere sortze-lanak “Marrak” izenburupean. Uztailaren 11n 11:00etan izango da irekiera, gero segidan Bego Bastarrika (akordeoia) eta Jose Luis Toledano (ahotsa, txirula baxua, biola...) bikotearen kontzertua. Bertaratzeko aurrez izena eman beharko da urmara.alkiza@gmail.com helbidean.

Zorione Mendezzen erakusketa uztailaren 11tik 23ra bisitatu ahalko da.

## Oria ibaiaren garbiketa

**K**aixo, gu Udarregi ikastolako DBH3B-ko ikasleak gara. Etikako arloan ekintza solidario bat egin nahi genuen, gure ingurumena ez dagoela egoera egoki batean ikusita, gure inguruko ibaiak garbitzea erabaki genuen. Guk Oria ibaia garbitu dugu, horretarako Txokoalde inguruko zonaldetara joan ginen. Urte hasieran, taldeka kalera atera ginen gure herriko kaleen egoera ikusteko. Guztia aztertu ondoren, gutako batzuk udaletxera joan ginen bertakoei gure proiektua azaltzera eta aurrera eramateko behar genuen material eta baimena eskatzera.

Gure iritziz, beharrezkoa ikusten dugu ibaiak garbitzea, gainera, gaur egungo birus honekin zikinagoa dago eta ondo etorriko zaio garbitzea, egoera honetaz gain, lurrazalean dauden hondakin askok, ibaietan bukatzen dute eta horrek bertan dauden bizidunak kaltetzen ditu. Bai arrainek mikroplastikoak jaten dituztelako, edota haien artean harrapatuta gelditzen direlako...

Horretarako, ekainaren bigarren astean bi egunez ibaia garbitzera joan gara (ekainak 8 eta 9), dagoeneko azterketak bukatuta genituela. Informazioa, hedabideetan zabaltu genuen (NOAUAn, ikastolako webgunean...). Ibaiak garbitzeko garaian, barruan sartu



“Oria ibaia garbitu dugu, horretarako Txokoalde inguruko zonaldetara joan ginen”.

**DBH3B-KO IKASLEAK**  
**“Gure iritziz, beharrezkoa ikusten dugu ibaiak garbitzea, gainera, gaur egungo birus honekin zikinagoa dago eta ondo etorriko zaio garbitzea”**

ginen, arropa egokiarekin, katiuskekin eta udaletxeak emandako materialarekin (eskularruak, plastikozko poltsak...). Bi egunetan zehar ibaitik ateratako zabor guztia, brigadako laguntzaz garbigunera eramanez dugu. Hau burutzeko behar bezala sailkatu genituen bildutako hondakinak, zabor poltsetan sailkatuz. Hau guztia brigadako laguntzari eta udaletxeak utzitako materialari

esker izan da posible.

Nahiz eta bi egunetan burutzeko proiektu bat izan, ibaiak oso zikin jarraitzen duela ikusten dugu. Proiektu honen helburua jendea ohartaraztea da, izan ere, ibaietako ura garrantzitsua da, bai naturarekiko nahiz bizidunekiko.

Proiektu hau, kurtsu honetan egin dugun lan guztiarekin eta bildu dugun informazio guztiarekin eramanez dugu aurrera eta gure helburua Oria ibaia garbitzeaz gain, jendeak ibaiaren egoeraren berri izatea eta hausnarketa bat egitea da, aurrerantzean garbiago mantentzeko eta egunerokoan gure ekintzen eragina aztertzeko eta aldatzeko. Oria ibaira botatzen ditugun hondakin guztiak iristen dira eta horren ondorioz ku-

tsatu egiten da. Gure helburua ibaia garbi uztea da baina bazuetan zaila da, izan ere, han aurkitu genituen neumatikoak eta beste hainbat objektu oso hondoratuta zeuden. Neumatiko batzuk atera genituen, baina beste batzuk ezin izan genituen, denbora luzez zudelako eta lurperatuta zudelako. Botila bat ere aurkitu genuen, baina ezin izan genuen atera, sustraiak eta guzti baitzituen. Horrek esan nahi du hondakin asko dagoela hor denbora asko damakitenak. Hau guztia ikusita, lortu al dezakegu egunen batean Oria ibaia bainu bat hartzeko moduan egotea?

**Udarregi ikastolako DBH3B-ko ikasleak.**

**ARGILAN**  
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
 629 272 859 eta 943 36 13 80  
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 ·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97





**SANTIXABELETAN  
EGIN ZURE ESKAERAKI!**

# Antxeta

TABERNA

**JAN  
ARI  
A**

**JASOTZEKO EDO ETXERA  
ERAMATEN DUGU**

**egunero irekitzen dugul**  
 -eguneko menua  
 (astelehenetik-larunbatera)  
 -jaiegunetan: asteburuko menua  
 -ogitartekoak, pintxoak, razioak,  
 oilasko erreak, hanburgesak,  
 pizzak..

**Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44**

# txirriStra

TABERNA




**-Plater konbinatuak**  
**-Ogitartekoak**  
**-Pintxoak**

***Ondo pasa Santixabeletan!***

**Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66**

# MIKEL ARRANDEGIA



**MIKEL ARRANDEGIA**

**Ondo pasa  
Santixabelak!**

**San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356**

# Elexpe

*de arrandegia*



**Ondo pasa  
Santixabeletan**

**Betileen tintaketa  
eta permanentea**

**Zutikako eta  
etzandako  
Solariuma**

**Muna Lurra 12 • ☎ 943 370 462**

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,  
garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m<sup>2</sup> Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastarora egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anis-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

**BESTELAKOAK**

Lepoko marroia duen txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintetan utzi du.

Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaito herrian. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filogia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / buchrahajar@outlook.com

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Beñat eta Eneko!**

Ondo pasa zuen eguna. Muxu bana familiakoen partetik.

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 01** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 02** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 03** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 04** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 05** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 06** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 07** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Osteguna 08** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 09** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 10** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 11** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.

# Agenda uztaila

## 02 ostirala

- **Kultur Bira: "Aupa Strings" taldearen emanaldia** 18:00 Oiardo Kiroldegian. Ikus 14. or.
- **Kultur Bira: Bertso-saioa Joxe Martin Sagardia plazan** 19:00. Ikus 14. or.
- **Kultur Bira: Bertso-gaua Udarregi Ikastolako karpagunean** 22:30. Ikus 14. or.

## 03 larunbata

- **Kultur Bira: Iratxoan oparien bila herrian barrena** 10:00 herrian barrena. Ikus 14. or.
- **Kultur Bira: Gazte olinpiadak** 17:00 Mikel Laboa plazan. Ikus 14. or.
- **Kultur Bira: Mihise eta Rotten XIII** 22:30 Udarregi Ikastolako karpa gunean. Ikus 14. or.

## 04 igandea

- **Kultur Bira: Orbeldi Dantzan III (helduen emanaldia) eta Puro Relajo** 18:00 Artzabalgo frontoian. Ikus 14. or.
- **Kultur Bira: Bulego taldearen kontzertua** 22:30 Udarregi Ikastolako gunean. Ikus 14. or.

## Kontzertuak eta bertsoak Santixabel egunean

Festak bertan behera utzi behar izan dira. Egoera iazkoa baino hobea da baina pandemia ez da oraindik amaitu. Hala ere, hainbat emanaldi iragarri dituzte asteburu honetarako. Kultur ekitaldi batzuk ordezkatuko dituzte jaietako ohiko jarduerak.

### Uztailak 2, ostirala

- 18:00 "Aupa Strings" taldearen emanaldia Oiardo Kiroldegian.
  - 19:00 Bertso-saioa udatxe aurreko Joxe Martin Sagardia plazan.
- Bertsolariak: Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita.  
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.



Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita udatele aurreko plazan arituko dira uztailaren 2an. Argazkia: bertsozale.eus

- 22:30 Bertso-gaua Udarregi Ikastolako karpagunean.

### Datorren astelehenean, odol-ematea

Uztailaren 5ean, odol-ematea arratsalde partean Udarregi Ikastolan. Aurrez odola eman izan dutenei hitzordua finkatuko zaie. Estreinakoz ematera doazenei 943 007 884 telefono zenbakira dei dezatela.

### Topaketa feministak Usurbilen

Uztailaren 9tik 11ra udaleku feministak egingo dira Usurbilen, Buruntzaldeko neska\* gazteek antolatuta. Ekitaldi ugari iragarri dituzte uztaileko bigarren astebururako.

### Datozenak

## Udako ordutegia udal-zerbitzuetan

### Oiardo kiroldegia

- Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.
  - Lanegunetan: 07:00/13:00 eta 15:30/20:15.
  - Txanda ludikoa: 16:45/17:45\*.
- Igerileku txikian har daitekeen txanda mota berria da txanda ludikoa. Udarekin batera, igerilekura lagunekin joateko ahalbidetu dute aukera hori. Lau laguneko bi talde sartu ahal izango dira, astelehene ostiralera, txanda ludikoan (16:45etik 17:45era).
- Asteburu eta jaiegunetan: 09:00/13:00.
  - Itxita: abuztuaren 9tik 22ra.

### Sutegi liburutegia

- Ekainaren 28tik irailaren 3ra.
- Lanegunetan: 09:30/14:00.
- Uztaileko astelehenean: 17:00/19:00.

### Bidez Bide (Taxibus)

- Uztailean, goizeko txanda soilik: 07:30, 10:30 eta 13:30.
- Azken eguna: uztailak 30.
- Abuztuaren, zerbitzurik ez.
- Irailak 1etik aurrera, ohiko ordutegia.

  
**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

*Usurbil Autoak*  
**MEKANIKA-KARROZERIA**  
  
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!  
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA  943 36 10 79

  
**GRUPO MONROY**  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
628 45 78 39  
reformasmonroy@hotmail.es  
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

# GIPUZKOAK

# BADU

## ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**European  
desberdintasun  
maila txikienetariko**  
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Foru Albandia  
Diputazioa Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
**ERAIKIZ**  
#GipuzkoarKonpromisoa

# ZATOZ SUPERMERKATU BERRI BAT EZAGUTZERA

PUNTAPAX KALEA, Z/G. USURBIL.

Erosketa oso-osorik egiteko supermerkatu bat, aukerarik handienarekin, zerbitzurik onenarekin eta produktu freskorik onenarekin, artatutako gure sailetan.

UDARREGI  
IKASTOLA

 **BM** Shop

OIARDO  
KIROLDEGIA

OSASUN  
ZENTROA

ARTZABAL  
FRONTOIA

San Inazio kalea

Galtzara Gaña kalea

Puntapax kalea

ARANERREKA



Ordutegia

Astelehenetik larunbatera

**9:00-21:00**



**350 m<sup>2</sup>-ko**  
SALMENTA-  
GUNEA



**Etxerako zerbitzua**  
KONTSULTATU  
BALDINTZAK  
KUTXAN



MARKA LIDERREN  
**5.000**  
PRODUKTU

 **BM** Shop